
**ARRASATEKO BASERRI AUZOETAN ZABORRA BILTZEKO ZERBITZUA ARAUTZEKO
UDAL IRIZPIDEAK**

Udalbatzarrak onartua 1993/06/29an

SARRERA

Arrasateko baserri auzoetan zaborra biltzeko zerbitzua arautzea dute helburu udal irizpide hauek, udal eskumenaren eremuaren barruan.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRA

1. Artikulua

Baserri auzoetako zaborra biltzeko zerbitzua edukiontziez egingo da, nahiz eta batzuetan zaborlekuak jar daitezkeen, eta zaborlekua da, zaborra uzteko edukiontzirik behar ez den lekua.

I. KAPITULUA - EDUKIONTZI ZERBITZUA

2. Artikulua

Udaleko Zerbitzu Teknikoek adieraziko dute non jarri edukiontziak.

3. Artikulua

Etxebizitza edo eraikuntza hurbilen dagoen zaborlekutik (edukiontzia edo zaborlekua) 150 m-ra edo gutxiagora daukaten erabiltzaileek, zaborleku hori erabiltzailearen auzoan egon edo ez egon, zaborra biltzeko zerbitzuari dagokion tasaren %100 ordaindu beharko dute.

4. Artikulua

Etxebizitza edo eraikuntza hurbilen dagone zaborlekutik 150 m-tik gora daukaten erabiltzaileek zaborra biltzeko zerbitzuari dagokion tasaren %50 ordaindu beharko dute.

5. Artikulua

Hirigunean zabor bilketaren baldintzetara (ordutegiak, e.a.) loturik egongo dira, nahiz eta baserri gunean egon, hirigunean dagoen edozein zaborlekutatik 150 m-tik behera eraikinak dauzkaten erabiltzaileak.

6. Artikulua

Zabor bilketako egun kopuruak edo maiztasunak astean ez dio eragingo tasa dela-eta erabiltzaileek ordaindu behar duten zenbatekoari.

7. Artikulua

Baserri eremuan jarrita dagoen edozein merkataritza jarduerako titularrak (jatetxeak, tabernak, enpresak, komertzioak, e.a.) hirigunean halako jarduerarako zaborra biltzeko zerbitzuari dagokion tasa ordaindu behar du, kontuan izanik 3. eta 4. artikuluek ezarritakoa, etxebizitza edo eraikinaren eta zaborlekuaren arteko distantziari buruz.

8. Artikulua

Eraikin edo etxebizitza baten inor bizi ez bada ere, dagokion tasa ordaindu behar du jabeak.

9. Artikulua

Udaleko Zerbitzu Teknikoek egiaztatzen badute edukiontzia txarto erabiltzen dela edo ez dela erabiltzen, edukiontzia handik kendu edo eraman egingo dute.

II. KAPITULUA – ZABORLEKUAREN ZERBITZUA

10. Artikulua

Ohiz kanpokoa izango da baserri auzoetan zaborlekuak jartzea, eta hura jartzeko hauek bete behar dira:

- Zaborlekuaz baliatuko den eraikina edo etxebizitza bilketako kamioaren ibilbidean egongo da.

- Eskatzailearen, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Arrasateko Udalaren artean dagokion akordioa lortu behar da.

11. Artikulua

Zaborlekua kenduko da, 10 b) artikuluan adierazten diren hiru aldeetako edozeinek salatzen duenean txarto erabiltzen dela.

12. Artikulua

Zerbitzu honetako erabiltzaileek hirigunean zerbitzu bera (ordutegiak, tasak, e.a.) duten erabiltzaileen betebeharrak berberak izango dituzte.